

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 7/2019

(...)KO (...)KO IKASTETXEKO ZUZENDARI (...)AK EUSKO JAURLARITZAKO (...) SAILEKO (...)KO ZUZENDARI (...)AREN AURKA JARRITAKO KEXARI BURUZKO ERABAKIA. KEXAREN GAIA: (...) (...)AK IKASTETXE HORRETAKO ZENBAIT (...)RI USTEZ EGIN DIZKIEN PRESIOAK HAREN SEMEAREN EGOERA DELA-ETA.

1.- 2019ko uztailaren 15ean, Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoko sailburuordeak idazki labur bat entregatu zuen Etika Publikorako Batzordean (EPB): (...)ko (...)ko Ikastetxeko zuzendari (...) (...)ak uztailaren 1ean Hezkuntza Sailburuordetzara bidalitako idazkia, zeinetan kexa bat aurkezten baita (...)ko (...)ko zuzendari (...) (...)aren aurka.

2.- Idazkian, hasteko, adierazten da aurtengo ekainaren hasieran, azken ikasturteko ebaluazio arruntari ekin baino lehen, familia batek ikastetxera jo zuela, eskatzeko “bere semearen ebaluazioan jarrera malgua izan dezatela (...) dela-eta”.

3.- (...)ko zuzendariak gehitzen duenez, ikastetxeak malgu jokatu zuen arren, familiak etengabe presionatu zuen posta elektronikoz nahiz telefonoz, eta (...) eta (...)rekin egindako bileretan eta abarretan, eta aitak, behin baino gehiagotan aipatu zuen zer kargu betetzen duen, hau da, (...)ko zuzendaria zela gogorarazi zuen.

4.- Kexa sustatu duenaren ustez, “lekuz kanpo dago kargua behin eta berriz aipatzea, agerikoa baita nolako eragina izan dezakeen ikastetxeko (...)en lanean”. Eransten duenez, “(...) eta (...)ak kezkatuta geratu ziren, eta, batzuetan, beldurtuta ere bai”.

5.- Azken batean, idazkian jarrera horren zilegitasuna eta etika jartzen da zalantzan, eta gertakarien berri ematen zaio Hezkuntza Sailburuordetzari, “horren arabera jokatu dezan”.

6.- Nahiz eta idazkiaren oineko oiharraren arabera idazkia Funtzio Publikoko sailburuordeari eta (...)ko ordezkariari ere bidali zaien, EPB honek lehenengoaren berri baino ez du izan: ekainaren 28ko data du, eta uztailaren 1eko irteera-data, eta uztailaren 1ean sartu zen Hezkuntza Sailean, eta zortzi egun geroago, Funtzio Publikoko sailburuordeari birbidali zitzaion; sailburuordeak 1. puntuan aipatutakoari jakinarazi zion, erabaki honetarako bidea emanaz.

7.- Kexa jaso eta berehala, EPBko idazkaria harremanetan jarri zen (...)ko zuzendari (...)rekin, haren jarrera eta jokabidearen kontra egindako akusazioen berri emateko eta bere interesak defendatzeko egokitzen zituen alegazioak egiteko aukera emateko.

8.- Uztailaren 22an, salatua izan den kargu publikoak sinatutako idazki bat erregistratu zen EPBren Idazkaritzan. Idazki horretan, “gertakarien kontakizun” bat eransten da (hiru folio eta erdikoa), eta dokumentu-eranskin zabal bat, zeinetan honako hauek jasotzen baitira, besteak beste: txosten ugari, (...) egiaztatzeak agiriak, ikasle (...)aren gurasoek eta ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeak elkarri bidalitako mezu elektronikoen sorta aipagarri bat, asistentzia-hutsegiteen zerrenda bat (ikastetxeak aurkeztua), eta ikasleak egindako azterketetan antzemandako irregulartasunak identifikatzen diren agiri bat.

9.- Idazkian, hasteko, sinatzaileak akusazioengatik duen sorpresa adierazten du; alegatzen duenez, “ikastetxeko taldearekin izan dudan harremana beti izan da zuzena eta errespetuzkoa, eta guraso gisa jardun dut beti, betetzen dudan kargua aipatu gabe, ikastetxera bidali ditudan mezu guztietan ikus daitekeen bezala” (azpimarratuta dator jatorrizkoan).

10.- Salatua izan den kargu publikoak halaber adierazten du saiatu dela “ahalik eta gehien minimizatzen ikastetxearekiko harremana, nire semearen ordezkari semearen amari eskuordetuta”, baina, hala ere, ikastetxeak eskutitz-bidez guraso biei premiazko bilera bat egiteko hitzordua eman zenez, “semearen etorkizun akademikoari buruz han eztabaidatu ziren gertakarien garrantzia dela-eta” —zalantzarik gabe, ikastetxeko (...)ak (...)aren gurasoei maiatzaren 30ean bidalitako eskutitzari buruz ari da, zeinetan eskatzen baitzitzaien “(...)ren (...)arekin lehenbailehen harremanetan jartzeko, ikaslearen egoera pertsonala eta akademikoa dela eta”—, behartuta geratu zela ikastetxearekiko harremanetan pertsonalki inplikatzera, “baina beti ikaslearen aita gisa, eta (...) baten eskubideak defendatzeko soilik”.

11.- Horri buruz idazkian esaten denez, salatua izan den kargu publikoaren semea, kexan aipatzen dena, 2017/2018 ikasturtean eta, batez ere, 2018/2019 ikasturtean, “(...)aren ondoriozko alterazio (...)ko batzuk izan ditu eta, alterazio horiek galarazi egin diote eskoletara hutsik egin gabe eta erregulariki joatea —horrela frogatzen eta egiaztatzen baitute txosten ugari (erantsita daude), ikastetxeak horiek guztiak ikusi dituela eta berak gordetzen dituela— eta erabateko eragina izan dute ikaslearen eskola-errendimenduan”. Alegazio horren osagarri, salatua izan den kargu publikoak adierazten du gurasoek ekainaren 4an (...)ekin eta (...)ekin egindako bileran, ikusi zuela “aipatu (...)aren ondorio (...)ak nahiko ezezagunak zirela bai (...)arentzat bai (...)ko batzuentzat”.

12.- Salatua izan den kargu publikoak alegazio-idazkian esaten du ezen “bistan denez, pertsona publikoa eta ezaguna da ikastetxean”, betetzen duen kargua dela-eta, eta (...) egitura organikoari buruzko dekretuak izendatzen dizkion eskumenak direla-eta; ezaguna da, halaber, bere izenpea agertzen delako kudeaketarekin lotuta “aipatu sailak egindako dokumentu ugari”.

13.- Hala ere, berriro esaten du, ez du bere kargua baliatu ikastetxeko (...)kin eta (...)kin izan dituen harremanetan, eta hala ikusten da —eransten du— ikastetxera bidalitako posta elektronikoko guztietan. Bestalde, alegatzen duenez, (...)kin eta (...)rekin izandako telefono-deiak

beti egin ditu “mugikor-zenbaki pribatuaz, zeinak ez baitu inolako zerikusirik Eusko Jaurlaritzarekin”, eta hartu-eman horietan, “aita gisa jardun dut, inoiz ere ez betetzen dudan kargua baliatuta, beti nire ponte izena edo izen-abizenak erabiliz, baina betetzen dudan kargua inoiz ere aipatu gabe”.

14.- Funtsezko eta frogatzeko gai honetan partikular gisa parte hartu duela beti, parte-hartze hori medio ez duela inor hertsatu eta ez duela onura partikularrik atera, gertakari hauek azpimarratzen ditu:

- Bere semeak ikasmaita erreplikatu beharko du; ikastetxeak “inguruabar arraro samarretan” kudeatu du egoera hori.

- Bere semeak, (...) beharko du.

- Hura, kargu publikoduna den aldetik, Eusko Jaurlaritzaren Etika Publikorako Batzordearen espediente baten mende dago, eta zalantzan jarri da haren zintzotasuna, ohorea eta Administrazio Publikoaren zerbitzura egindako ibilbide luzea.

15.- Erantsitako “gertakarien kontakizunean”, hasierako idazkian egindako kontsiderazioekin batera, hainbat xehetasun eta datu gehitzen dira, salatua izan den kargu publikoak eta haren emazteak aurtengo ekainean ikastetxearekin izan zuten harremana nolakoa izan zen erakusteko. Horren harira, aipagarria da, gai honi dagozkion ondorioetarako, ekainaren 4an (...)ekin eta (...)ekin egindako bileratik aurrera hasten den aldi kritikoa; izan ere, bilera horretan, gurasoak “suminduta eta harrিতuta” agertu ziren ikastetxeak arazoa kudeatzeko baliatutako “denbora eta moduak” ikusita, eta ez daude batere ados eman zioten gomendioarekin (“ikasleak ikasmaita erreplikatzea”); (...)aren (...)ari eskatu zioten hura ebaluatzeko eta behar ziren azterketak egiteko.

16.- Horiek horrela, EPB honek, Etika eta Jokabide Kodearen 16.4 artikuluko bigarren tartekiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du aho batez:

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1.- Gobernu Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 28an, Etika eta Jokabide Kodea (EJK) onartu zuen, zeina egun jasota baitago 2016ko azaroaren 22an onartutako Testu Bateginean. Kode hori sortzearen helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeke erronkari erantzutea izan zen.

Horretarako, aipatu Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzea, haren eraginkortasuna sendotzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegintzea.

2.- Etika eta Jokabide Kodeak bost balio ditu ardatz: Integritatea; Bikaintasuna; Politika eta Kudeaketaren arteko Lerrokatzea; Lidergoa, eta Berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna; Kudeaketarako Erantzukizuna; Gardentasuna eta Gobernu Irekia; Onestasuna eta Desinteres Subjektiboa; Errespetua, eta Eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko kargu publikodunek eta beren borondatez Kodearekin bat egiten duten parekatuek nahiz Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonak helarazitako gai eta zalantza etikoei.

3.- Horretarako, EJKren 16.3.1. e) apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, EPB organo eskuduna da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kezak edo salaketak jasotzeko, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzeko”.

II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Planteatzen diguten gaia oso labaina da giza ikuspegitik, (...) baten inguruan sortu baita. (...) horrek (...) du, salatua izan den kargu publikoak aurkeztutako dokumentazioan sendo egiaztatzen den bezala, eta (...) horrek eskoletara erregularki joatea eragotzi dio azken ikasturtean, eta horrek eragina izan du ikaslearen errendimendu akademikoan, eta ikuspuntu psikologikoan eta pedagogikoan oinarrituta kudeatzeko zailak izan diren egoerak sortu dira, une batzuetan.

2.- (...) matrikulatuta zegoen ikastetxeko (...)ak kexa-idazkian adierazten duenez —idazki laburra, zehatza eta dokumentu-euskarririk gabea—, aitak, (...)ko zuzendari eta salatua izan den kargu publikoak, “etengabe presionatu zuen posta elektronikoz nahiz telefonoz, eta (...) eta (...)rekin egindako bileretan eta abarretan [...] , eta behin baino gehiagotan aipatu zuen zer kargu betetzen duen”; eta horren ondorioz, (...)aren kontakizunaren arabera, “(...)eak eta (...) kezkatuta geratu ziren, eta, batzuetan, beldurtuta ere bai”.

3.- Bestalde, salatua izan den kargu publikoak bere jarrera eta jokabidea defendatzen du, eta, modu kritikoan, ikastetxearen eta hango zenbait (...)eren jarduera batzuk aipatzen ditu — jarduera horien zuzentasuna ezin du ebaluatu EPB honek, bere aplikazio-eremua gainditzen baitu—, eta irmo ukatzen du bere karguaz baliatu dela presio bidez bere semearentzako tratamendu pribilegiatua lortzeko. Horren harira, hau adierazten du:

a) Saiatu da ikastetxearekiko harremana “ahalik eta gehien minimizatzen”, semearen ordezkari “semearen amari eskuordetuta”.

b) Pertsonalki inplikatzeko hasi zen (...)ak guraso biei premiazko bilera bat egiteko hitzordua eman zienean eskutitzez, “semearen etorkizun akademikoari buruz han eztabaidatu ziren gertakarien garrantzia dela-eta”, behartuta geratu baitzen ikastetxearekiko harremanetan pertsonalki eta zuenean parte hartzera, “baina beti ikaslearen aita gisa, eta (...) baten eskubideak defendatzeko soilik”.

c) Ezaguna eta nabaria da zer kargu betetzen duen; izan ere, haren izendapena EHAAn argitaratu zen, dokumentu ugari sinatzen ditu, eta (...)etan izan zen (...) batzuekin batera. Horren guztiaren ondorioz, ikastetxeko guztiek dakite inguruabar horren berri, hark aipatu beharrik gabe eta solaskideei berariaz gogorarazi beharrik gabe. Daukan erantzukizun publikoa agerikoa eta nabarmena da, eta ikastetxean guztiek dakite horren berri, eta, hain zuzen ere horregatik, ez da beharrezkoa hori une oro erakustea, eta ezinezkoa da hori disimulatzea edo ezkutatzea.

d) Hala eta guztiz ere, kargu hori inoiz ez du baliatu Institutuko kideekiko harremanetan, eta hala ikusten da ikastetxera bidaliko posta elektroniko guztietan; izan ere, mezuetan bere izen-abizenekin identifikatzen da soilik, kexan aipatzen den ikasle (...)aren guraso gisa. Halaber, (...)ekin telefonoz izandako harremanetan, beti baliatu du “mugikor-zenbaki pribatua, zeinak ez baitu inolako zerikusirik Eusko Jaurlaritzarekin”.

e) Bestalde, ikastetxearekin izan duen harremana “zuzena eta errespetuzkoa izan da beti”, aita arduratsua bati dagokiona, hau da, seme (...)aren bilakaera akademikoaz interesatzen den eta semearen interesak ahalik eta objektiboen defendatzen dituen aita batena.

4.- Erabaki honetan garatu behar dugun arazoibidearen abiapuntu gisa baieztatu daiteke ezen EAEko sektore publikoko kargu publiko batera iristean arau etiko bereziki zorrotzak bete behar direla, baina horrek ez dakarrela kargu hori lortzen dutenak herritar gisa ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien eskubideez eta askatasunez gabetzea, ez eta eskubide eta askatasun horiei kalte egitea ere. Kasu honetan, printzipio horren arabera, kargua izendatzeak hari ez zion kendu seme (...)aren interes sanitario eta akademiko zaintzeko duen eskubidea —eta, neurri batean, egin beharra—; are gehiago: behar izanez gero, legearen esparruan, egokitzen jotzen dituen akzioak abiaraz zitzakeen, (...)a matrikulatuta zegoen ikastetxeko arduradunen aurrean, bai eta Hezkuntza Administrazioaren aurrean ere.

5.- Baina, eskubide hori zalantzan jarri gabe, erabaki honetarako bidea ireki duen kexak planteatzen du salatua izan den kargu publikoak etikoki ez-zilegiak diren terminoetan baliatu zuela eskubide hori. Puntu horretan, beraz, zentratu behar dugu gure arreta.

6.- Kexa-idazkia, esan den bezala, dokumentu sinplea eta erraza da, dokumentu-euskarririk gabea. Aitzitik, salatua izan den kargu publikoak ikastetxeko (...)ekin eta (...)rekin idatziz izandako harremana zehazki nolakoa izan zen dokumentatzeko aurkeztu duen mezu elektronikoen zerrenda zabalean, ikus daiteke inoiz ere ez duela aipatzen —ez espresuki ez inplizituki— zuzendaria dela. Mezu horiek sakon aztertuta ikus daiteke, zalantzarik gabe, igorleari buruzko atalean izen-abizenak soilik agertzen direla —inolako kargu publikorik edo administrazio-erantzukizunik aipatu gabe—, eta nola idazpuruan hala sinaduran, (...)ren aita gisa aurkezten duela bere burua (“(...)ren aita naiz”) edo, besterik gabe, (...) gisa. Halaber, ikastetxeak ikasle (...)aren gurasoei informazioa emateko edo erantzuteko bidaltzen dizkien mezuetan, gurasoak ponte izenez baino ez dira aipatzen (“Kaixo (...) eta (...)”; “Kaixo (...)”) edo izen ofizial osoaz, aitak betetzen duen kargua inoiz ere aipatu gabe.

7.- Posta horietan erabilitako hizkerari dagokionez, salatua izan den kargu publikoak sinatutako idazkietan ere ez da ikusten inolako joera inposatzailerik, mehatxatzaileak edo larderiazkorik. Aitzitik, bere izenean ikastetxera edo horko arduradunen bati bidalitako gutun guztiak zuzenak, neurtuak eta errespetuzkoak dira. Baita aurkakotasunak edo desadostasunak adierazteko mezuak eta Hezkuntza Administrazioaren aurrean jarduketak bultzatzea iragartzeko mezuak ere. Agian, mezu esanguratsuen gurasoek (...)ari 2019ko ekainaren 6an bidaltzen diotena da: aditzera eman zioten zer pertzepzio zuten “ikastetxea-gurasoak komunikazioan izandako gaizki-ultertu nabaria dela-eta, (...)aren egoeraren eta inplikazioen berri ez izatea dela-eta, [...] eta emaitza akademikoetan eragina duten edo izan duten beste arazo-mota batzuen berri ez izatea dela-eta”, eta eskatu zioten erabaki zezala “ahalik eta tarterik handiena uztea (...)en azterketa ohikoen eta ezohikoen artean, egoerara egokitu ahal dadin”. Eskutitzean, hasieran, (...)ari eskerrak ematen dizkiote arretagatik (“mila esker zure arretagatik”), eta, amaitzeko, “eskerrak eman nahi ditugu taldearen laguntzagatik”.

8.- Salatua izan den kargu publikoak ikastetxera bidalitako posten zati handi batean, adeitsua eta begirunezkoa da hizkera, eta kortesiazko esaldiak daude, eta horietan zail da presio- edo hertsatze-elementurik ikustea. “Mila esker zure dedikazioagatik eta barkatu kalaka emateagatik” [19.06.19]; “Eskerrik asko zure arretagatik eta denboragatik” [19.06.20]; “Lehenik eta behin, zure mezua eskertu nahi dizugu, horrelako gai konplexu baten ingurukoa izanda” [19.06.21]; “Eskerrik asko. Zure esku uzten dut erabakia” [19.06.21].

9.- Bi kasutan soilik areagotzen du hizkeraren irmotasuna, baina solaskideei inoiz ere errespetua galdu gabe, eta ez dago esapiderik ondorioztatzeko kargu publikoa legez kontra baliatu duela, (...)ei presio egiteko, onura pertsonal edo familiarren bat zilegitasunik gabe lortu nahian. Horren erakusgarri, (...)ari 2019ko ekainaren 13an bidalitako posta, zeinetan baieztatzen baitu “(...) bat

duen (...) bati egiten ari zaion presioa gehiegizkoa da, alegia, azterketa piloa egin behar izatea horren epe motzean (ekainaren 5etik), bai plangintza, antolakuntza edo komunikazio faltagatik edo dena delakoagatik. Gaiari buruzko kontsulta egin diegu Hezkuntzako adituei, eta esan digute lehena (...)aren ongizatea eta osasuna dela, eta presio-mota horiek eragina izan dezaketela haren emozioetan, eta egoera depresibo bat sor diezaioketela”. Hizkera mehatxatzaile bat baino gehiago, transkribatutako zatiaren adierazpenean guraso arduratsu batzuen interes legitimo eta logikoa islatzen da, alegia, semearen osasuna bere promozio akademikoarekin bateragarri egiteko ahal duten guztia egiteko nahia.

10.- Edonola ere, mezu-trukean hitzez esandako gehiegikeria posibleengatik barkamena eskatzeko mezuak ere ez dira falta. “Azken gertakariak kontuan hartuta, zuzen zaude: asteazkeneko gauean bidalitako mezua ez zen dotorea izan. Familiako guztiok presio handia dugu (hiru azterketa programatuta ostegunerako), eta orduan gehiegizkoa iruditu zitzaidan lan gehiago eskatzea semeari. Barkamena eskatzen dizut zuri eta (...)rri” [19.06.21].

11.- Egiazki, kargu publiko bat baliatzen baldin bada Administrazio Publikoko langileak presionatzeko interesatuari onura pertsonal edo familiar bat ekarriko dioten erabakiak har ditzaten, printzipio hauek urratzen dira, edo, bederen, urra daitezke, kasu bakoitzeko inguruabarren arabera: inpartzialtasun eta objektibotasunaren printzipioa (EJK, 5.2.4 atala), onestasan eta desinteres subjektiboaren printzipioak (EJK, 5.2.7 atala), eta, segur aski, bakoitzak bere erakundeetan eta antolakundeetan duen zeregin edo funtzioarekiko errespetuaren printzipioa ere bai (EJK, 5.2.8 atala).

12.- Kasu honetan, ordea, salatua izan den kargu publikoak aurkeztutako dokumentazioari esker, ikusi dugunez, zehatz mehatz jakin daiteke idatziz nolako harremana izan duen ikastetxearekin, eta hori aztertuta, ezin ondorioztatu daiteke aurreko puntuan azalduko jokabidea izan duenik. Puntu horri dagokionez, azpimarratu behar da alde ikaragarria dagoela alderdi bien artean: batetik, salatua izan den kargu publikoak froga-eginbidea egiaztatu du, eta, bere alegazioak babesteko, akordio honen gaiaren inguruan ikastetxeko (...) eta (...)rekin izan duen posta-trukearen zati handi bat —guztia ez bada— bidali du EPB honetara; eta, bestetik, horren aurrean, kexa sustatu dutenek ahalegin eskasa egin dute beren akusazioak dokumentu bidez egiaztatzeko. Kontrastea hain da nabaria, ezen behartuta baikaude gure erabakia kexaren hartzaile izan denak aurkeztutako material frogatzailean oinarritzera.

13.- Ez dakigu, jakina, ahozko harremana idatzizko harremanaren gisakoa izan den ala ez, baina aztertu dugun mezu elektronikoz guztietan hizkera nolakoa izan den ikusita, beste frogabide batzuk ezean —kexa sustatu dutenek ez baitute halakorik aurkeztu—, ez dugu uste arrazoirik dagoenik pentsatzeko —are gutxiago, ziurtzat jotzeko— salatua izan den kargu publikoak ikastetxearekin izan duen harremanaren ahozko adierazpena oso bestelakoa izan dela idatziz erabilitakotik, etikoki zilegi denaren marra zeharkatuta.

14.- Ez zaigu ezkutatzen kargu publiko baten titular izatea —(...)ak horren jakitun zirela, hark espreski gogorarazi beharrik gabe— ezkutatuta egon zitekeela haren semearen egoera akademikoa dela-eta (...)kin eta (...)rekin izan zituen elkarrizketa askotan —edo baita guztietan ere—, eta balitekeela horrek solaskideen artean kezka-sentsazioa sortzea, baita beldur-sentsazioa ere, kexa-idazkian aipatu bezala. Baina, kargu publikoak bere alegazio-idazkian adierazten duenez, inguruabar hori ezin zitekeen disimulatu edo ezkutatu. Eta, egiazki, argudiatu den bezala, aztertutako dokumentazioarekin ezin da ondorioztatu salatua izan den kargu publikoak datu hori behin eta berriz gogorarazi zuenik idatzizko harremanean, ahaztu gabe datu hori agerikoa eta nabarmena zela ikastetxeko guztientzat.

Hori guztia aintzat hartuta, EPB honek hau erabaki du, aho batez.

ERABAKIA:

1.- Kargu publiko bat baliatzen baldin bada Administrazio Publikoko langileak presionatzeko interesatuari onura pertsonal edo familiar bat ekarriko dioten erabakiak har ditzaten, printzipio hauek urratzen dira, edo, bederen, urra daitezke, kasu bakoitzeko inguruabarren arabera: inpartzialtasun eta objektibotasunaren printzipioa (EJK, 5.2.4 atala), onestasun eta desinteres subjektiboaren printzipioak (EJK, 5.2.7 atala), eta, segur aski, bakoitzak bere erakundeetan eta antolakundeetan duen zeregin edo funtzioarekiko errespetuaren printzipioa ere bai (EJK, 5.2.8 atala). Nahiz eta hori horrela den, kasu honetan, kontuan hartuta, batetik, salatua izan den kargu publikoak dokumentazio ugari aurkeztu duela bere alegazioak babesteko, eta, bestetik, kexa sustatu dutenek ez dutela material frogatzailerik aurkeztu beren akusazioak babesteko, ezin da ondorioztatu mota horretako jokabide bat egon denik, baizik eta eskubide baten erabilera zilegia eta zuzena, herritar gisa semearen osasuna bere promozio akademikoarekin bateragarri egiteko helburua duena.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abuztuaren 27a.